

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 1094

*430/2024 EBAZPENA, otsailaren 20koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez aldi baterako idazkari funtziotan gaitzen den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan estatutupeko langile izateko hautaketa-probetarako epaimahai kalifikatzailean, Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Fak. Esp. Pediatria Kirurgikoko Mediku kategorian.*

Indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, eta idazkari titularra den María Carmen Matthies Baraibar andreak eta ordezeko idazkaria den María Isabel Bilbao Iturribarria andreak aldi baterako ezintasun-egoeran daudela kontuan hartuta, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2024ko otsailaren 20tik aurrera Iñaki Armentia Arsuaga jauna aldi baterako idazkari funtziotan gaitzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan estatutupeko langile izateko hautaketa-probetarako epaimahai kalifikatzailean, Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Fak. Esp. Pediatria Kirurgikoko Mediku kategorian.

Bigarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitara dadin agintzea.

Hirugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoaren arabera (hots, oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautzen dituen horretan ezarritakoaren arabera), ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 20a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.